

**MUSIKA  
BULEGOA**

Batzen  
gaituena.

**MUSIKA BULEGOA SARIAK** 2026

BIARRITZ  
ATABAL  
19:00

2026.06.04

**MUSIKA BULEGOA SARIAK**

ANTOLATZALEA  
ORGANIZA  
**MUSIKA BULEGOA** Batzen gaituena.

BAREILE INAGUSIAK  
PATROCINADORES PRINCIPALES  
**Bizkaia** LABORAL EUSKAL

BAREILEAK  
PATROCINADORES  
araba/álava EUSKAL INSTITUTUA SFTL

LAGUNTZALEAK  
COLABORAN  
Fundación Euzko Fundazioa Atabal

MEDIA  
PARTNERS  
eitb berria

**MUSIKA BULEGOA SARIAK 2026**  
**PRENTSA DOSSIERRA**

## Olaia Inziarte



Olaia Inziarte abeslari eta kantautore nafarra da, eta euskarazko eszenaren ahots bereizgarrietako bat, berrikuntzaren eta sentsibilitatearen bidez bere proposamen propioarekin sendotzen ari dena. Ahots gozo bezain indartsuarekin, doinu garbiak eta erritmo minimalistak ehuntzen ditu testu zainduen eta emozio zuzenen bitartez. Zuzenean, formatu zaindua eta hurbila eskaintzen du.

### Lan saritua: Zerrautsa – Diska

Zerrautsa sustraiak eta gaur egungo soinuak uztartzen dituen musika proiektua da, identitate propioa, mezu landuak eta zuzeneko indartsuak ardatz dituena.

### Epaimahaia:

Xehatze ariketa muturrekoa da “Zerrautsa” diskoa, enbor zabalaren azaletik txirbil alerik ñimiñoraino iristeko ahalegin zaindu eta zintzoa. Inziarteren talentuari eta ekinari esker, hondar aleok berriz mamitu eta oraingo eta hemengo zero berrietara ernatzen dira abesti forman, sustraietara eskapu egin gabe, doinu noiz kulunkari noiz inarroslez eta melodia gozoetan gordetako hitz sendoz.

## Maite Ruiz de Erentxun



Euskal akordeonista eta konpositorea, Maite Ruiz de Erentxun jazzean trebatua dago. Bere proiekturik berriena bere ideiak eta sonoritatea partekatzen dituen espazioa da, akordeoiak jazzaren hizkuntzaren barruan ere leku baliotsua izan dezakeela defendatzeko borondatearekin.

### Lan saritua: Maite Ruiz de Erentxun - Diska

Musika propioa konposatzeko nahitik sortutako proiektu pertsonala da. Jazzean trebatutako euskal akordeoi jotzaile eta konpositore gisa, akordeoiak jazzaren barruan duen balioa aldarrikatzen dut.

### Epaimahaia:

Maite Ruiz de Erentxun-ek jazzaren eta musika tradizionalaren arteko fusioan oinarritutako proposamen sendoa aurkezten du. Konposizioen kalitateak eta moldaketa instrumentalek, euskarazko letrekin batera, nortasun bereizgarria ematen diote lanari.

## Ødei



ØDEI rapero eta ekoizlea euskal raparen eszenako ahots berezietako bat bihurtu da, bere letra sakon, ilun eta pertsonalengatik ezaguna. 2zio taldean hasi zuen bere ibilbidea, eta, hiru disko argitaratu ondoren, bakarkako ibilbideari ekin zion Terapia bakarkako bere lehen diskoarekin, trap eta drill soinuak dituzten gai intimo, sozial eta existentzialak ardatz hartuta. 2025an bere unibertso artistikoa zabaldu zuen bere bigarren bakarkako disko luzea kaleratuz, Goizegi hiltzeko.

### Lan saritua: Goizegi hiltzeko - Diska

15 abestiz osatutako lan honetan , boom bap , trap eta drill erritmikak uztartzen ditu , mezu gordin eta errima zorrotzekin. Sakontasuna galdu gabe , unibertso eta soinu anitzak jorratu ditu.

### Epaimahaia:

Album honekin, Ødei-ek bere unibertsoa zabaldu nahi izan du, hainbat giro musikal aztertuz, ohiko sakontasuna eta narrazio-dimentsio sendoa galdu gabe. Euskarazko rap kontzientearen esparruan sendotze artistiko bat dela ondoriozta daiteke, oso proiektu ambiziotsua baita; bai entzunaldiarako bai zuzeneko emanaldirako ondo landua.

## Ezezez



EZEZEZ Bilboko talde gazte bat da, bi urte baino gutxiagoan bi diska kaleratu eta Bilboko Kafé Antzokian egindako aurkezpenean sarrera guztiak agortu dituzte. DIY praktika bere gain hartuta, soinu eta irudi indartsuak definitzea dute helburu. Guzti honi zuzeneko emanaldi epikoak gehituta, haien proposamen freskoarekin kritikariak eta entzuleak irabazi dituzte. Berrogeita hamar data baino gehiago dituen bira batekin rock eszena nazionalaren oinarriak astintzen ari dira

### Lan saritua: Kabakriba - Diska

Taldearen estudioko hirugarren diskoa da eta erosotasunetik alde egiten du; energia gordina, kosk egiten duten letrak eta genero ezberdinen nahasketa basatia.

### Epaimahaia:

Harridura sortzen duen diskoa dela esan daiteke, taldean askatasunez sortua. Garai hauetan ez da ohikoena eta musikarien arteko jokuekin zerbait desberdina eskeintzen dute. Efektuekin ere joko handia antzematen da, mimoz landutako ekoizpen baten adierazgarri. Hitzek lana ongi josten dute, beren euskalkian abestua egoteak beren munduan murgiltzea errazten du, nahiz eta gaztelaniazko esaldiak tartekatzea ere ohikoa izan.

## Jon Sáenz



Jon Sáenz Getxoko musikagilea da. Musikenen ikasi zuen eta bere obra musika garaikidean eta koralean oinarritzen da. Bere konposizioak jaialdi eta agertoki garrantzitsuetan aurkeztu ditu eta nazioarteko talde eta abesbatzekin elkarlanean aritu da. 2025ean bere lehen opera esperimentalak estreinatu zuen, Exodus, eta 2026an Portugalgo Paisagem Esperimentu Jaialdiak enkargatutako obra berri bat aurkeztuko du.

### Lan saritua: Exodus – Obra musikal idatzia

Exodus abesbatza, ensemble eta elektronikarako opera esperimentalak da, Jon Saenzek Hegoa Álvarez eta Akelarre Abesbatzarekin batera sustatua.

### Epaimahaia:

Exodus lanak gizateriaren alde iluna esploratzen du beldurrik gabe, aldaketari espazio irekia utziz. Ahots bakarlaririk gabeko opera esperimental honek abesbatza jartzen du erdigunean, giza ahotsaren mugak arakatuz. Ahotsak ez dira soilik harmonia harrigarriak sortzera mugatzen, baizik eta ñabarduraz, oihuz, arnasestuka eta baita inprobisatutako zatiz betetako paper dramatikoak hartzen dute. Obran zehar, Jon Sáenzek musika klasikoa eta elektronikoa trebeziak nahasten ditu, opera gaurkotasunera eramanez. Exodus, zalantzarik gabe, oso lan garrantzitsua da gure garaiotarako.

## Maite Larburu



Maite Larburu musikariak rol, bide eta genero desberdinetatik gurutzatzen du musika, inoiz entzun ez den baina betidanik hor egon den soinu-unibertso bat irudikatu nahiean. Beste diziplinetako artistekin kolaboratzen du biolin jotzaile, abeslari edota konpositore moduan..

### Lan saritua: Maizter - Diska

Maite Larbururen bosgarren lana da Maizter. Hamar kantu bildu ditu diskoak, eta "maizter" izatearen ideia da bertan lantzen duen ardatza. Bizitzari begirada pausatu eta sakona eskaintzen dio Larburuk lan honetan.

### Epaimahaia:

Disko naturala da, nabari da bilaketa baten emaitza dela, artisau-lanaren fruitua. Kantuek geruza ugari dituzte eta kaskoekin entzutean beste mundu batera eramateko gaitasuna dute. Biolina eta gitarra nabarmendu arren, ahotsa da elementu nagusietakoa; kantua borobiltzen duen tresna.

Beharbada, sinpletasun handiko lana dirudi eta bilatua da sentsazio hori. Izan ere, kantu bakoitzaren atzean lan handia dago. Diskoak bestelako doinuak ere biltzen ditu: kanpoko hotsak eta geruza horiek guztiek entzulea harrapatzeko gaitasuna dute. Hitzetan ere antzematen da sakontasun hori; askok lekuaren inguruko gogoeta edo arrasto bat gordetzen baitute.

## Sara Zozaya



Sara Zozaya Euskal Herriko musika eszena berriko ahots berezietako bat da. 2018an bere bakarkako lehen EPA argitaratu zuenetik, artista donostiarrak soinu-unibertso propioa garatu du, non lo-fi, pop esperimental, minimalismoa eta euskal tradizioaren oihartzunak elkarrekin bizi diren.

### Lan saritua: attä – EP

"Attä" Sara Zozayaren aurrerapausoa da. Soinu paisaia berrira eramaten zaituzten lau gai eta emozio paleta bat. Aloud Music-ek (Marina Herlop, Viva Belgrado) argitaratua.

### Epaimahaia:

Sara Zozaya bilaketak eta jakin-minak gidatuta, Ke Lepo ekoizlearekin eta Castillo Suárez idazlearekin elkartu da attä EP zoragarria taxutzeko. Elkarlan berriak sortzeko duen gaitasunari esker, Aloud Music-ekin lotu da bere zuzeneko nazioarteratzeko, eta proposamena sendotu du Itziar Garaluce-ren ikus-entzunezko lanek. Nabarmentzekoa da elektronikaren inguruan eraikitzen duen estiloen nahasketa eta elementuen arteko tentsioa; gauza guztien gainetik, ordea, bere begirada propioa eta nortasun berezia dira benetan azpimarragarriak.

## Izaki Gardenak



Izaki Gardenak 2012an sortu zen americana, indie rock eta rock alternatiboa nahasten dituen doinuak zeharkatuz. Letrak eta interpretatzeko modua bereziki zainduz, Ahots-harmoniak eta erritmo-sekzio aberats eta indartsuak dituzte, gitarra eta teklatu moldaketekin konbinatuta, pasarte atmosferikoagoetatik une bortitzagoetara eramango gaituztenak.

### Lan saritua: Sitsak - Diska


"Sitsak" bilduma berezia da Izaki Gardenak taldearen ibilbidearen barruan. Era askotan bitxiak diren kantuek eta bertsoiak biltzen ditu.

### Epaimahaia:

Sitsak diskoan atmosfera intimo eta dotorea topatuko du entzuleak. Bertan isiltasuna instrumentu bat gehiago da. Ekoizpena sotila baina zehatza da, moldaketa delikatuekin eta Basagurenen ahots bereizgarriarekin. Taldeak unibertso bare, baina hunkigarria eraiki du lan eder honetan.

## Fermin Muguruza Etxepare Euskal Institutua Musika Saria 2026

Euskal musikaren nazioartekotzeari aintzatespena.



### Epaimahaia:

Fermin Muguruza Euskal Herria eta euskal kulturaren enbaxadore handia izan da Kortatu taldearekin lehen pausoak eman, Negu Gorriak taldearekin mundu osoa zeharkatu, eta gaur egun arte gidatu dituen beste hamaika proiektuekin. Euskal musika berari esker heldu zen lehen aldiz munduko leku askotara, eta berak irekitako bide horri segika heltzen dira gaur egun euskal musikari ugari hainbat tokitara.

Aldi berean enbaxadore eta anfitrioi, Ferminen joan-etorriek sare-lana ekarri dute beti. Inork gutxik bezala asmatu du hainbat jatorritako musikariak elkarrekin proiektu komunetan kolaboratzen jartzekoan.

2025ean mundu mailan egindako bira erraldoiak modu paregabean itxi du lau hamarkadetan nazioartean egindako lana.

## Javier Corral EHMBE Ohorezko Saria 2026

Euskal musikagintzan egindako ibilbidea eta egindako ekarpena aitortzea.



Kazetari ezaguna eta 2026ko urtarrilean argitaratutako "Fiesta y Rebeldía" liburuaren egilea. Kazetaritza musikalean ibilbide oso bat egin duen profesionala, gaur ere eszena berriari jarraitzen diona.

## Xabi Aburruzaga Publikoaren Saria 2026

Publikoaren aintzatespena.



Bask bi urteko bizipenetan sortutako lana da: trikitixaren sustraietatik eta konposizio berriein eraikia, nazioarteko kolaborazioei esker euskal musikaren begirada berri bat eskaintzen du.